


*Eskaloia zuria
izenpez betera
eta haien artean
ba dago nirea*



*Gure gizona Pello izenaz
behin apurtu zuen hanka
txakur handi bat etorri zela
eta hasi zitzaion zaunka*



Hor kon

Belar eta zuhaitzak
ugari mendian
beti ibiltzen zara
basoen artian
gustatuko zitzaidan
ibili zaldian
baina orain ni nabil
ibiltzeko aldian.

Mendian guk daukagu
pila bat zuhaitza
baina faltatzen zaigu
itsaso eta hondartza
sastrakadi artean
jolastu lan gaitza
itsaso edo mendia
hemen dut zalantza

hemen agurtzen gara
Olatz eta Ziortza
orri hauetan utziz
gure klopen hotsa.



pon. Txikien txokoa

GORBEIA!

Ondoren kontatuko dizueguna orain dela hiru urte Gorbeia mendira txangoz joan ginela gertatu zitzaiguna da. Gure ikastolan autobusa hartu eta Gorbeiarantz abiatu ginen. Motxilak Land-Rover batetan eraman zizkiguten eta leku batean geratu ginen elkartzeko. Bertara iritsi, motxilak hartu eta aterperanzko bidea igotzen hasi ginen. Euria eta laino ugari zegoen. Gelako batzuk aurreratu ziren maixuarekin, eta beste batzu atzerago geratu ginen. Hainbat laino zegoenez ez ginen elkar ikusten ezta aterpea bilatzen ere. Baina, marra zuri batzuk jarraituz, azkenez aterpea bilatu genuen. Igotzen hasi ginetik heldu arte ordu pilo igaro zen eta aterpea ikusterakoan txingorra ari zen.

Aterpea txikia eta oso zaharra zen. Sua pizteko, egurra ebaki behar izan genuen. Atzeko aldean komun zikin eta zahar bat zegoen, komuneko kikara. Eta bomba zati bat. Horri komuna deitu ahal bazaio. Lehen eguna oso arin iragan zen. Gauez sua egin genuen eta sutondoan jolasean, elkar hizketan eta abesten gau erdia igaro genuen. Goizaldeko bostetan taldeko batzuk txokolatea prestatzeko esnatu ginen. Bitartean maixua eta taldeko mutil batzuk teilatura igo eta uluka ari ziren, otsoak bezalaxe. Guztiok esnatuz gero, maixuak, handik hurbil zeuden haitzulo batzuk ikustera joan gintezen proposatu zigun. Aner Fernandez, Unai Gardoki, Asier Rodrigo eta gu biok aterpean geratu ginen. Lehen hirurak zapaburu, igeletan eta zaldi bila joan ziren eta gu sua zaintzen geratu

ginen. Kitarra jotzen eta abesten orduak poliki zihoazten, baina handik etzen inor agertzen. Maixuak hamabietan itzuliko zirela esan zigun baina denbora aurrera zihoan eta, inor ere ez! Sua amatatzen hasi zen eta guk gatza bota genion, baina, gehiegi bota genion eta amata egin zen. Ordu batak jadanik, eta ez ziren agertzen. Ordu biak... Ordu biak eta laurden... Bapatean, gu biok aterpe barruan urduri geundelarik atea jo zuten. Bi haizto hartu eta atea zabaltzerakoan... Rodrigo zen! Haiztoak sama ondoan ikusi zituenean beldurtu zen. Negarrez zetorren. Beste biak, ere, laister itzuli ziren. —«Etorri al dira?» Galdegin ziguten. —«Ez».

Teilatura igo eta txistuka ari ziren ea maixua eta besteak zetozen. Zegoenekoz laurak eta piku ziren. Rodrigo toki zihur batetan utzi genuen, hoberena zelakoan, eta aterpean laranja, linternak eta labanak harturik laguntza eskatzera joateko gertu ginen. Ohar bat egin genuen: «Seiretan alde egin dugu. Laguntza bila goaz. Rodrigo, behean dagoen eletrizitate-etxola batetan utzi dugu». Atea itxi genuen, joatekotan geundelarik, eta... han agertu ziren! Maixuari argazki-makina jausi zitzaion, beste bi amildegi batetik jausi ziren, galdu egin ziren, e.a., e.a. Aterpea apaindu ondoren maldan behera txangoa bukatutzat eman genuen. Berandu heldu ginen, noski. Autobusa galdu genuen, gurasoak larri ziren, e.a. Hurrengo egunean ikastolara itzultzerakoan guztiok txangoari buruz hizketan ari ginen.

Textos y dibujos:

Olatz Gonzalez eta Ziortza Llona
ALTZAGA IKASTOLA ERANDIO 7.maila